

Errioxak eta Gaztela eta Leonek alegazioak aurkeztu dituzte 'Ramondin auzia'-n

Bi gobernu autonomoek idazki bana eraman dute Bruselara, laguntzen aurka egiteko

Agentziak / Logroño-Valladolid

Errioxako eta Gaztela eta Leongo gobernuak alegazio idazki bana aurkeztu zuten atzo Europako Batzordean, Eusko Jaur-laritzak eta Arabako Aldundiak Ramondin enpresari emandako laguntzak «legez kanpo-koak» eta «merkatu baka-rrarekin bateraezinak» direla salatuz. Bruselak zabalik dauka ikerketa txosten bat *Ramondin auzia* dela-eta.

RAMONDIN enpresaren inguruko auzia 1997. urtean sortu zen, botiletarako kap-sulak egiten dituen enpresa horrek egoitza Logroñotik Biasterira (Araba) aldatzea erabaki zuenenean, EAEko zerga-pizgarriei baliatzeko helburuz.

Errioxako Gobernuak sala-keta egin zuen Bruselan, eta Europako exekutiboak iker-keta espediente zabalitza erabaki zuen, Ramondinek jasotako laguntzak legekoak diren ala ez ikusteko.

Lehenago, Bruselak legez kanpokotzat jo zituen Dae-woo Koreako multinazionalak Gasteizen kokatzeagatik jasotako diru-laguntzak.



MIREN SAEZ

Ramondinek 1997an aldatu zuen egoitza, Logroñotik Biasterira.

Logroñoko eta Valladolideko gobernu autonomikoek atzo aurkeztutako alegazioak Karel Van Mierty Lehiarako komisario ohiak zabalduko espedientearen sartuko dira.

Alegazio horien arabera, Ramondinek jasotako «maile-gu fiskala» —2.500 milioi pezeta baino gehiago inberti-

tzen duten enpresentzat EAEn onartutako kenkari fis-kalak— ez datoz bat Europa-ko Batasuneko araudiarekin. Kasu honetan, gainera, enpresa horren inbertsioak lekuz aldatzeko ondorioa ekarri dutela ohartarazi dute Errioxako eta Gaztela eta Leongo gobernuak.

Haien iritziz, alegazio horiek bat datoz Europako Batzordeak EAEko eta Nafarroako erregimen fiskalen aurka zabalduko espediente orokorraren argudioekin, baita Luxenburgoko Justizia Auzitegiko abokatuak uztai-laren hasieran jakinarazitako konklusioekin ere.



PABLO S. QUIZA

Olaskoaga omendu zuten Zarautzen.

Igandean Barrikako kostaldean hil zen Juan Olaskoaga ELA sindikatuko kide historikoa-ri omenaldia egin zioten atzo Zarauzko hilerrian sindikatuko lagun, senide eta adiskideek. Besteak beste, ELAko idazkari nagusi Jose Elorrietak hitz batzuk esan zituen, Olaskoaga-oren oroitzapena egi-nez. ELAko kideez gain, euskal sindikalismoko ordezkariak ere izan zen atzoko ekitaldian; LABeko idazkari nagusi Rafa Diez, esaterako.

laburrean

■ Guztira 590 merkataritza elkarte sortu dira Hego Euskal Herrian ekainean

IRAGAN ekainean guztira 590 merkataritza elkarte eratu ziren Hego Euskal Herrian, aurreko maiatze-an baino 94 gehiago. Elkarte horien kapitala denera 7.808 milioi peze-takoa izan da. Bizkaian sortu dira konpainia gehienak, 266, 3.130 milioi pezetako kapitalare-kin. Gipuzkoan 191 enpresa sortu dira, 1.763 milioiko kapitalarekin. Araban 52 konpainia era-tu dira, 261 milioirekin. Nafarroari dagokionez, ekainean 81 merkataritza elkarte sortu dira, 2.655 milioi pezetako kapitalare-kin.

■ CCOOk pentsioen igoera ituntzeko eskatu dio Madrillgo Gobernuari

MADRILGO Gobernuak pentsioen igoera itundu behar luke indar politiko eta sozialekin, Julian Ari-za CCOO sindikatuko batzorde eragileko orde-zkariaren aburuz. Arizak uste du Espainiako Gobernuak Parlamentura eraman behar duela itun horretan planteatutakoa, lurralde guztietan ematen ari diren pentsio baxue-nak igo daitezen. CCOO-rentzat, Parlamentuan alderdi guztiekin eztabai-datu beharko da proposa-men hori 2000ko aurre-kontu orokorren barnean, hots, kontuan hartuz epea irailean bukatuko dela.

■ Asia munduko hazkunde ekonomikoaren buruan

ASIA munduko suspertze ekonomikoaren buruan dagoela jakinarazi du *The Economist* aldizkariak plazaratutako txosten batek. Espero baino hobeto gain-ditu du Asiak 1997 eta 1998. urteetan izandako krisia. Txosten horrek mundu osorako %2,9ko igoera ekonomikoa aurrei-kusten du aurtengo, eta %3,3koa 2000. urterako. *The Economist*-ek EEBBe-tako ekonomiaren sendotasuna ere azpimarratu du, baina inflazioa eta interes tasak igotzeko arriskuaz ohartarazi du.